



Printzipioak eta portaerak: Pertsonak garatzeko bide bat. Eta Gizartea Pertsonak dira.

Abenduaren hasieran enpresan parte hartzeko eredu inklusiboa sustatzeko jardunaldi bat egin zen, Eusko Jaurlaritzak, Europako Batzordeak, ASLEk eta ALEk antolatuta. Topaketa telematikoa izan zen, eta partaide izan ziren Urkullu lehendakaria, Idoia Mendia bigarren lehendakariordea, hiru Lurralde Historikoetako eta Nafarroako Foru Erakundeetako ordezkariak eta ASLEko eta ALEko ordezkariak.

Topaketan langileek “enpresa proiektuan” parte hartzeko ereduez hausnartu zen, eta ALEk (Arizmendiarietaren Lagunak Elkartea) Enpresan Parte Hartzeko Eredu Inklusiboa esplikatu zuen. Eredua, Elkartek honek osorik protagonizatu eta sustatzeko lan sakon eta dinamiko baten ondoren, aho batez onartu zen, 2018an, EAEko eta Nafarroako Legebiltzarretan, eragile sozial guztien atxikimenduarekin.

Astebete geroago, ALEk Europako Batzordeko Ekonomia Sozialaren bilera – hainbat nazionalitatetako eragileekin lan egiten du– partekatu zuen Eredua, pertsonak enpresaren arloan asebetetzeko bide moduan.

Gaiak ez du inolako ezberrik eragiten. Alderantziz, ahopeka guztiz kontrakoa, sen oneko erabateko adostasuna.

ALEko taldeak egindako lan ona –Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren sorrera inspiratu eta Arizmendiarietak borondate irmoarekin bultzatu zituen printzipioen balioa agerian jarri– mahai gaineratu egin da berriro ere, ibili beharreko bideak eta erabili beharreko tresnak birpentsatu behar diren garai hauetan.

Esfortzu partekatua, Pertsona ekintzaren erdigunean jartzea, ordainsari justua eta duina, parte hartzea, aberastasuna sortzea eta horren banaketa enpresarial eta sozial bidezkoa, ingurunea zaintzea eta belaunaldien arteko eskuzabaltasuna; kontzeptu horiek, gure iritziz, koherenteak dira gure existentzia indibidual eta kolektiboarekin, eta frogatuta dago gure bizitza ekonomiko-sozialean garatu daitezkeela.

Horren erakusle da Arrasateko esperientzia Kooperatiboa –Esperientzia deitzen jarraitzen da, beti garatzen eta eraldatzen–, baita ere Arizmendiarietak eta haren bost ikasle nabarmenek (ULGOR) garatutako konpromisoa eta printzipioak.

Kontakizun hau idaztetik urrun, ordea, nabarmendu nahi dudana dira Printzipioak eta, batez ere, horiei **elkartutako portaerak**. Kontua ez da soilik Printzipioak edo Balioak zerrendatzea, baizik eta horien esanahian sakontzea eta, batez ere, zer portaera pertsonal eskatzen diguten. Zer egin behar dugun eta zer ez.



Pertsona erdigunean jartzeaz hitz egiten dugunean, esaten ari gara erabaki edo ekintza oro etika humanistikoarekin alderatu behar dela. Bat etorri behar da pertsonaren ongizatearekin eta errespetuarekin, izan hori jabea, langilea, bezeroa edo gizarteko kide bat.

Aberastasuna sortzeaz eta banatzeaz hitz egiten dugunean, soldata justuez eta duinez ari gara, batetik hamarrera arte baino gehiago egongo ez diren soldaten orekaz –inguruko konpainia bati buruz orain dela gutxi argitaratu den 1etik 648ra artekotik urrun–, emaitzak sortzen denaren arabera partekatzeaz, emaitzaren zati bat ekintza eta ingurune sozialari itzultzeaz, gizartearen bizi kalitatea hobetuz, zergetatik haratago.

Eta **belaunaldien arteko elkartasunaz** hitz egiten dugunean, gazteentzako soldata justu eta duinez ari gara. Nola nahi dugu gure osasunarekin eta pentsioekin solidario izatea, intsolidarioki zapaltzen ari bagara bizi proiektu bat egiten uzten ez dieten lansariekin? Bakoitzak solidarizatu behar du bestearen beharren esparruan. Elkarrenganakoa izan behar da. Eta gazteak dira gizarte honen oraina eta geroa.

Parte Hartzea eta Konpromisoa Konfiantzatik garatzen diren bi kontzeptu dira, eta, horretarako, gardenak izan behar gara, orduak eman enpresa proiektua azaltzen, erabaki baten edo gehiegizko esfortzu baten zergatia edo estrategien zertarakoa azalduz. Begietara begiratzuz hitz egin behar da asko, erabakien erdigunetik, zergati horiek lehen eskutik azaltzeko eta ulertzeko. Eta Konfiantza izan. Eta berriro ere Konfiantza izan. Jarrera horretatik ere ezagutzen delako proiektuan norik egon nahi duen eta egon behar duen, baita ere norik ez duen egon behar, ez duelako ekarpenik egin nahi. Hori ere elkarrenganakoa da.

Eskuzabaltasunera iritsita, ohartu behar gara enpresa denon Proiektu bat dela. Ekintzaileengandik hasita, eguneroko ahaleginarekin osatu dutenenganaino. Eta hemen sortzen da enpresa komunaren belaunaldi arteko proiektua. “Sortutakoa” hurrengo belaunaldiarentzat geratzen da, hobetzeko eta hurrengoari lagatzeko konpromisoarekin. Joaten naizenean “dena eraman gabe”. Enpresak bizirik jarraitu behar du, horretan ahalegintzen jarraitzen dutenen eskuetan. Eskuzabaltasuna esaten zaio horri, eta existitzen da. Existitzen da Arrasateko Esperientzia Kooperatiboan, eta belaunaldiz belaunaldi funtzionatzen du.

Eta ez dut amaitu nahi **Talentua** aipatu gabe. Ez dut jasaten –eta barkatu erradikaltasuna– etengabe entzutea “talentua erakarri” behar dela. Gure pertsonak talentudunak ez balira bezala. Egin behar dena da horretarako baldintzak sortu eta garatzeko aukerak eman. Edo uste dugu “azkar” bakarrak batzuk direla? Edo ahaztu egin dugu askotan eman dizkiguten aukerei esker ere garatu garela? Mesedez, sinetsi dezagun gure gazteengan, eman diezaiegun aukera erantzukizuna delegatuz, eta prestatu gaitezen fruitua jasotzeko. Gainez egingo digute eta!



Arizmendiarrietaren
Lagunak Elkartea

Baldintzak eta tresnak ditugu etorkizun esperantzagarri bat mantentzen jarraitzeko. Denok dugu erantzukizuna eta denok jarri behar dugu jokoan gure jarrera. Fruitua gure inplikazioaren araberakoa izango da.